

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Osteguna, 2012ko abenduaren 27a. IX. urtea. 2.456. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

Karlos Linazasoro Idazlea

## «Neure buruari barre eginda, gainerakoei ere barre egiteko lizentzia lortzen dut»

Karlos Linazasoro idazle tolosarrak 'Bertan goxo' liburu laburra kaleratu du; beilatokiko ateak zabalduz, heriotza eta bizitza umore beltzez eta ironiaz busti ditu

Liburua bere «betiko kezak eta obsesioak» kontatzeko bide bat izan dela dio idazleak; literatura eremu libre moduan hartzen du, eta nahi duena egiteko aukera ematen dio **3**



## Aurten ere nesken Ibarra A taldea goma gainean txapeldun

Ibartarrek Badaiotzen aurka lehia estua izanda irabazi dute goma gaineko lauko txapelketa **6**



Ibarra A nesken sokatira taldea podiumean. HITZA

## Emakumea Pilotariko finalak, etzi

Lehen mailan, Arozena lizartzarra eta Mendizabal anoetarra, elkarren aurka **7**

## Karroza lehiaketako oinarriak prest

Tolosako inauterietan diru laguntzak jasotzeko baldintza berriak jarri ditu udalak **2**

2013ko egutegia

Zatoz HITZAra, 2013ko mahai egutegiaren bila!

TOLOSALDEKO hitza <sup>info</sup>  
ETA LEITZALDEKO

ko egutegia 2013



Jokin Monfort jai teknikaria eta Mikel Arreseigor zinegotzia, iragan ostiralean, kultur etxean. A. IMAZ

# Diru laguntzak jasotzeko ez da nahikoa izango karroza edo konpartsa bat egitea

Konpartsa eta karroza lehiaketan parte hartzeko hainbat baldintza jarri ditu Tolosako Udalak

**Asier Imaz** Tolosa

Jokin Monfort jai teknikariak eta Mikel Arreseigor zinegotziak, Tolosako inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketako oinarriak eta baldintzak aurkeztu zituzten iragan ostiralean. Lehiaketan parte hartu nahi duten guztiek, Tolosako kultur etxean edo [www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net) webgunean eman beharko dute izena, eta horretarako epea, otsailaren 1ean amaituko da, 13:00etan. Izena emandakoan, zerbaki bat jasoko dute parte hartzaileek. Ondoren, inauterietan, zerbaki hori bistan jarri beharko dute, euren

emandaldietan argi eta garbi ikus dadin.

Berrikuntzetako bat, hain justu, hori izango da. Dieta edo diru laguntzak jaso nahi dituzten konpartsa edo karrozek, emandaldia eskaini beharko dutela.

Horrekin batera, plataformek gutxieneko neurri batzuk izan beharko dituzte. Karrozen kasuan, 2,5 metroko zabalera gainditu beharko dute, eta 7 metroko luzera. Konpartxak, aldiz, 2x3koak izan beharko dute gutxienez.

Baldintza guztiak izena emateko puntuetan eskuratu ahalko dira.

Sari banaketa ekitaldia otsailaren 15ean egingo dute, Piñata igandearen aurrerako ostiralean, 19:00etan udaletxeko batzar aretoan.

Ferialekua erabiltzeko ere hainbat arau jarri dituztela argitu zuten Arreseigorrek eta Monfortek. Hasteko, udaleko kultura

## ↓ Deialdiak

### INAUTERIAK 2013

■ **Karroza eta konpartsa lehiaketa.** Tolosako kultur etxean edo [www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net) web orrian eman behar da izena. Azken eguna otsailaren 1a, 13:00ak, izango da.

■ **Zezen plazan zer?** Udalak inauterizaleekin bi bilera egingo ditu. Lehena, gaur, hilak 27, egingo du, Tolosako kultur etxean, 19:00etan.

sailaren baimena beharko da bertan lan egiteko. Erabiltzaileei bere kokapena zein den adieraziko zaie, eta karroza eta konpartsa handienek lehentasuna edukiko dute. Ferialekuaren kontrola udalak emango du, eta arauak ez baldin badira betetzen, bi aldiz ohartarazi ondoren, udalak zigorrak jartzeko eskumena izango luke.

### Zezen plaza inauterietan

Zezen plazaren inguruan azken urteetan jira bira ugari egon dira. Gauzak argitzeko eta erabakiak elkarrekin hartzeko, udalak bilera antolatu du gaur, hilak 27, kultur etxean. Inauterizaleekin elkartu nahi dute udal ordezkariak eta teknikariak, zezen plazan zer egin daitekeen eta zer ez adosteko. Bilera 19:00etan hasiko da. Monfortek eta Arreseigorrek herritarrek bertara gonbidatu dituzte.

# Gazteentzat sei etxebizitza bideratu ditu udalak

Ibai Iriarte alkateak alokairuaren alde hitz egin du, Gazteentzako Etxebizitza Planaren aurkezpenean

**A. Imaz** Tolosa

Tolosako Udalak gurasoen etxetik mugitu nahi duten gazteei lagundu nahi die, eta horretarako, Gazteentzako Etxebizitza Planaren lehen urratsa abian jarriko dutela iragarri du Ibai Iriarte alkateak. Planaren ardatza alokairua izango da, izan ere, Iriarteren hitzetan hori da etorkizuna.

Lehen urrats honetan sei etxebizitza jarriko dira alokairuan, 35 urtetik beherako gazteentzat. Hauek, kupo orokorreko zerrendatik aukeratu dituzte. Itxaron zerrenda honetan 27 eskatzailek betetzen dituzte eskatzen diren baldintzak.

Ibai Iriartek azaldu duenez, «lehen pauso bat ematen dugu, azkena izango ez dena, eta helburu nagusi bezala gazteei emantzipatzen laguntzea duena».

### Bitartekari lana

Sei etxebizitza hauek herriko gazteen esku geratuko dira, alokairuan. Horretara iristeko, ordea, Agaramunduko edo Igarondo ingurlekuen eremuko etxebizitzetara joan behar da. 2012ko ekainean, Agaramunduko babes ofizialeko etxebizitzak zozketatu ziren; Hauetatik hogeitabi, 70 urtetik gorako eskatzaileen artean, eta bat, mugikortasun urri iraunkorrekoen artean. Etxebizitza berrira joateko, zaharra jabetzan zuenak bata bestearengatik aldatzeko

aukera zuen, horretarako hainbat baldintza beteta. Gauzak horrela, udalak bigarren eskuko sei etxebizitza eskuratu dituela azaldu zuen. Horiek nori banatu erabakitzeko, udalak, Tolosako udalbatzari begiratu behar izan dio, han erabaki baitziren eman beharreko urratsak. Bertan arautua horrela laburbiltzen da: Agaramunduko etxebizitzaren zozketaren itxaron zerrendako 35 urtetik beherako eskatzaileei eskainiko zaizkie hutsik gelditzen diren etxebizitzak. Hor kokatzen da udalaren bitartekari lana, izan ere, maizterrek etxebizitzaren jabeekin sinatuko dituzte alokairu kontratuak. Udalak bere lanean, maizterrek ordaindu beharrekoa zenbatekoa den kalkulatu du, babes ofizialeko etxebizitzaren araudia aplikatuz.

### Alokairu programa orokorra

Gazteentzako Etxebizitza Planaren aurkezpenean, Ibai Iriarte alkateak udalaren lana herritarren arazoei irtenbidea ematen laguntzea dela esan zuen: «Jakin badakigu, etxebizitza zer nolako arazoa den denentzat, eta zer esanik ez gazteentzat». Ondoren, gazteentzako etxebizitzak alokairuan sustatzeko jorratu duten programaren ildo nagusiak aurkeztu zituen. Eskatzaileen erregistroari urte hasieran emango zaio azken onarpena, Iriarteren esanetan. Horrekin, udalaren esku egon daitezkeen etxebizitzaren esleipena gauzatu nahi dute. Azkenik, 2013aren hasieran, Euskal Herria plazako 27 etxebizitzaren proiektua aipatu zuen; udala Tolosako etxebizitza hutsak betetzeko egitasmo desberdinak lantzen ari dela iragartzearekin batera.



Aitziber Lazkano hirigintza teknikaria eta Ibai Iriarte alkatea. A. IMAZ

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Julen Telleria Tolosa

Ez du etenik Karlos Linazasororen (Tolosa, 1962) literatur emariak. Lan bat bukatzerako, hurrengoari zein forma emango dion pentsatzen aritzen da beti. Horixe da sortzailearen patua. *Bertan goxo* izeneko liburu laburra da, amaigabeko ekarpen horren azken emaitza.

Ez da ohikoena beilatoki baten inaugurazioko istorioa kontatzea, baina Linazasorok «nahiko *outsider* moduan» ikusi izan du beti bere burua. Etxeko estudioan, baina, eroso sentitzen da, bertan goxo.

**Nobela honen eskutik beilatoki batera sartuko gara. Zer dela eta?**

Lagun batek beilatoki baten inauguraziora joateko gonbita jaso zuen, eta hortik dator ideia. Gauza benetan kuriosoa iruditu zitzaidan, izan ere, taberna bat edo denda bat inauguratzerakoan normala iruditzen zait jendea gonbidatzea, pintxo batzuk eskaintzea... baina beilatoki bat ireki eta hori erakustea, harrigarria izan zen niretzat. Honelako erokeria bat egiteko abiapuntu polita iruditu zitzaidan.

**Zer da nobela honetan kontatzen dena?**

Aitak beilatoki bat ireki behar du, eta horren inguruko kontakizuna egiten digu bere alabak. Hasieran, familiarekin izaten dituen solasaldi batzuk agertzen dira, baina liburuaren mamia, beilatokiaren inaugurazio eguneko gora beherek osatzen dute. Jende asko dago gonbidatuta, politikoak, jubilatua, herriko jendea, eta abar. Bertan, pintxo batzuk daude, instalazioak erakusten dituzte... eta orduan hasten da zentzugabeheria.

**Barrea eragiteko bakarrik idatzi duzu?**

Horretarako bakarrik ez. Azaleko irakurketak agian hori irudi lezake, gaiak umorez tratatzen direlako. Baina azpian badaukela beste irakurketa bat, izan ere, jorratzen diren gaiak nahiko transzendentek dira. Heriotza eta bizitza, komunikazioa eta inkomunikazioa, filosofia, eta antzerako kontuak ukitzen dira. Nire betiko kezkek eta obsesioak kontatzeko bide bat izan da liburu hau, eta umorea erabili badut ere, gauza askori buruz hausnartzen da modu xume eta jostari batean.

**Zerduerakargarri nobela honek?**

Lehenengo inpresioan, beilatoki bateko istorioak sekulako morboa duela pentsatu daiteke. Baina horretatik ez dauka batere. Azken batean, nobela hau zentzugabeheria bat da, esperpento bat. Modu oso bizian kontatzen dira gauzak, elkarriketak arinak dira, ironia asko dago, umore beltza, absurdoa... Nire kontuak ezagutzen dituenak badaki gauzak nondik nora joango diren eta zer aurkituko duen. Baina askok hala espero badu ere, ez da batere morbosoa.



J. TELLERIA

## Karlos Linazasoro ◉ Idazlea

‘Bertan goxo’ izeneko bere lan berriak beilatoki bateko atea zabalduko dizkio irakurleari. Heriotza eta bizitza moduko gaiak, umore beltzez eta ironiaz busti ditu idazle tolosarrak

# «Nire liburuak baliatzen ditut neure burua biluztu ahal izateko»

**Liburu hau euskal literatur paisaiaren barruan legoke?**

Ez, ni beti nago kanpoan. Baina uste dut bakoitzak bereari heldu behar diola, eta bere bideari jarraitu. Nik behintzat nireari jarraitzen diot. Literaturan, askatasun eremu hori oso ondo zaintzen dut. Oso leku gutxitan izaten da nahi duzuna egiteko aukera, kasik inon ez. Horregatik, niretzat literatura eremu libre bat da, nik nahi dudana egiteko aukera ematen didana. Beste kontu bat da, jendeak irakurtzen duen edo ez. Horretan nahiko *outsider* moduan ikusten dut nire burua.

**Nobela honen arabera, heriotza umorez hartu beharko litzateke?**

Surrealistek esaten zuten, heriotzari aurre egiteko umorea dela baliabide bakarra. Salbazio moduko bat, azken finean. Hala ere, heriotza barrez hartzeak ez du esan nahi beldurrik ematen ez dandik. Baina bada nolabait heriotzari gain hartzeko modu bat, nahiz eta badakigun ez dagoela ihesbiderik. Bizitzaren aurrean hartzen den jarrera bat da, betirako mantentzea zaila bada ere.

**Benetakoa da liburuan islatzen den gizarte eroa?**

Benetakoa baino, gure gizartearen karrikatura bat litzateke, esajeraziora eramana dagoena. Pertsonen arteko ezin ulertuak, joka bideak, bizimoldeak... guztiak muturrera eramana daude. Hala ere, horren azpian kritika soziala ere badago, noski. Beti ironiaz eta oso gogor jarri gabe, baina aprobeztatzen dut politikariei, liburuazainei eta oro har gizarte-eragur pixka bat emateko

**Inora iristen ez diren elkarriketazoro horiek, norabait iritsi nahi izanduzu?**

Bizitzak zentzurik ez duela adierazten da dialogo burugabe eta absurdo horiek. Bizi dugun hau guztia zer den, edo zergatik den galdetzen diogu askotan geure buruari, eta ez dugu erantzunik topatzen. Bada, nobela hau, horren guztiaren isla izango litzateke, nahiz eta aurrerago esan bezala, guztia esajeratua eta karikaturrara eramana dagoen. Horrek askotan barrea sorrarazten du, edo hori da behintzat nire intenzioa.

**Zu liburuazainazanda, nolatan eman diozu kargu bera nobelako pertsonaia bati?**

Nire liburu guztietan agertzen da

beti liburuazain bat. Beti edo gehienetan, behintzat. Alter-ego ariketa bat da. Ni neroni azaltzen naiz askotan, eta neure buruari barre egiteko modu bat da. Mas-kara kendu eta neure buruari barre eginda, gainerakoei ere barre egin ahal izateko lizentzia lortzen dut. Hori egingo ez banu, zerri galanta izango nintzateke. Horregatik, askotan egiten diot barre neure buruari.

**Nobela diozu jakina dela liburuazainen umorea. Zein ote da umore hori?**

Hori liburuan aitak esaten du bere emazte liburuazainagatik, umore gutxi duelako, edo oso zuzena eta zuhurra delako, edo beti arrazoia daukalako. Baina hori azken batean neure buruari egiten diotan keinu bat da. Izan ere, serio itxura horren azpian badago beste begirada bat, pertsonalitate bat. Mundu guztiak dauka jendearen aurrean bere moztorra, baina pertsonak ez gara itxura bakarrik, izateko era asko daude norberaren baitan. Kapak eta moztorra kentzen ditugun heinean agertzen dira beste pertsonaia batzuk, eta nik nire liburuak baliatzen ditut neure burua biluztu ahal izateko.

**Non egoten da bertan goxo Karlos Linazasoro?**

Etxean egoten naiz ni bertan goxo. Etxean, idazten eta irakurtzen. Eta baita mendian ere. Baina lagunekin ere bai, geroz eta gehiago bertan goxo. Bakarrik egotea gustatzen zait, baina lagunekin bildu, zerbait hartu eta afaltzeko beharra ere izaten dut. Izan ere, guzti honek arrisku bat dauka. Autistak ia bagara, eta gainera ez baldin badaukagu komunikatzeko erraztasunik, beti



Nire betiko kezkek eta obsesioak kontatzeko bide bat izan da liburu hau»

«Niretzat literatura eremu libre bat da, nahi dudana egiteko aukera ematen didana»

«Serio itxura horren azpian badago beste begirada bat, pertsonalitate bat»

«Neure buruari barre eginda, gainerakoei ere barre egin ahal izateko lizentzia lortzen dut»

KARLOS LINAZASORO  
Idazlea

gure munduan sartuta egoteko arriskua dago. Eta hori kaltegarria dela iruditzen zait. Horregatik, bakarrik ibiltzea gustatzen bazait ere, geroz eta nabarmenago sumatzen dut lagunartean beharra.

**Zer dela eta idazten dituzu horren istorio laburrak?**

Izaera eta denbora kontua da. Nobela bat idazteak, esaterako, jarraipen eta dedikazio handia eskatzen du, eta gainera ni sekula ez naiz nobela zalea izan. Horregatik, nire gustuen eta izaeraren arabera gauzak idazten ditut, eta gauza laburrak izaten dira. Poesia, ipuinak, aforismoak, gazetxoentzako gauzak, testu laburrak, egunerokoak... azkar idazten diren horietakoak gustatzen zaizkit. Nire idatzeko epea bi hilabetetan daukat jarria. Hortik aurrera, normalean, aspertu egiten naiz, eta beste zerbaiti ekiten diot. **Aurten irabazi berri duzu zure azken saria literaturan. Errekoizimendua nola neurtzen da, saritan ala irakurletan?**

Ez dakit. Nik uste dut poz gehiago ematen duela irakurleak izateak, baina nik irakurleekin ez daukat harreman handirik. Nire jende gutxi ortozten zait nire liburuen inguruan hitz egitera, ze onak, edo ze txarrak, edo ze desastreak diren esatera. Ni ere, egia da, ez naizela bereaigana gehiegi hurbiltzen. Sariak poza ematen du, jakina, baina gero saritutako liburuak ez bada zabalitzen, ez bada irakurtzen eta kantatzen, hortxe geratzen da.

# TAO sistemako 5. gunean sartuko dira Larramendi auzoko aparkaleku guztiak

Arkauteko etxearen pareko lursailean, 120 autorentzako aparkalekua egokituko dute, bertakoentzat

**Itzea Urkizu** Tolosa

Larramendi auzoko eta inguruetako kale guztietan, TAO sistemaren 5. gunea ezarriko du Tolosako Udalak, datorren urtarrilaren 1etik aurrera. «Bertako bizilagunei irtenbide egoki bat» ematea dute helburu honekin.

2010. urte amaieran hartu zuten, udalak, Larramendi kalea eta inguruko kaleak Tolosako TAO sistemako lehen gunera eransteko erabakia. Besteak beste, Voith-Gorostidi eremuko etxebizitza berriak eraikitze lanen hasiera izan zen arrazoietako bat, obrekina batera aparkalekuek behar kada jasan baitzuten zonalde horretan.

Orain, ordea, eremuko zenbait etxebizitza bukatuta, eta beste batzuk amaitzeaz daudela, auzoaren inguruko aparkaleku sistema birplanteatzeko beharra somatu du Tolosako Udalak, «bertan bizi direnei soluzio hobea eskaini ahal izateko».

Honenbestez, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, Arramele, Ibaiondo, Larramendi, Madalen,



120 autok aparkatu ahal izango dute argazkiko lur eremuan. I. GARCIA LANDA

Montetxe, Trinkete eta Uzturre kaleak, nahiz San Joan plaza, TAO sistemako 5. gune izatera parako dira.

**120 aparkaleku bertakoentzat** Larramendiko lurperatzearen obrak ere laster hasiko dira, eta egungo zenbait aparkaleku desagertu egingo dira lanak direla eta.

Horregatik, Larramendi kaleko 5. zenbakiko Arkaute etxearen parean dagoen lursaila 120 autorentzako aparkaleko gisa egokituko du Tolosako Udalak. Aipatzekoa da, eremu horretan, txartela indarrean duten bizilagunek bakarrik utzi ahal izango dutela autoa

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa, Villabonan

Sailkaturiko lehen bikoteak, herriarteko hurrengo kanporaketarako txartela eskuratuko du

**I. Urkizu** Amasa-Villabona

Bihar, abenduak 28, Euskal Herriko Mus Txapelketaren barruan, Amasa-Villabonako kanporaketa jokatu dute. 23:00etan hasiko da mus saioa, eta Villabonako kultur etxean izango da.

Txapelketako antolatzaileek, Amasa-Villabonako herritar guztiei dei egin die parte hartzera joateko; horretarako, 22:00etan irekiko dute izen ematea, eta bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko du.

Amasa-Villabonako kanporaketako sariak honakoak izango dira: bikote irabazleak marisko kaxa bana eta botila bana ardo txuri; bigarren sailkatzen den bikoteak, berriz, arkumea eta kria antza ardo bana eskuratuko du; azkenik, hirugarrenek, Euskal Herria-Bolivia futbol partidarako sarrerak izango dituzte sari. Aipatzekoa da, parte hartzaile bakoitzari botila bat ardo banatuko dietela.

**Hurrengo kanporaketa bidea**

Amasa-Villabonako mus txapelketako kanporaketa irabazten duen bikoteak, bestalde, Euskal Herriko Mus Txapelketako herriarteko hurrengo kanporaketan parte hartzeko aukera zuzena ere izango du.

Ondorengo sailkatuek, berriz, izena eman duten bikote kopuruaren arabera eskuratuko dute hurrengo faserako txartela.

Honen inguruko datu zehatzagoak, nahiz txapelketaren inguruko datuak, [www.euskalherriko-mustxapelketa.org](http://www.euskalherriko-mustxapelketa.org) webgunean eskuratu ahal izango ditu interes duen edonork.

• [villabona-aiztondo@hitza.info](mailto:villabona-aiztondo@hitza.info)

## Desagerturiko emakume asteasuara mendian hilik topatu dute

**I. Urkizu** Asteasu

Pasa den abenduaren 19an desagerturiko Eider Izagirre asteasuara, joan den larunbatean topatu zuten, hilda, Aizkorri inguruan.

Desagerpenaren berri izan, eta ondorengo egunetan, boluntarioak eta larrialdi taldeak haren bila aritu ziren, larunbat eguerdian 37 urte zituen emakumearen gorputza aurkitu zuten arte. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak jakinarazi duenez, amildegi batean aurkitu zuten, Legazpiko Azpiola parajearen, Aizleor eta Aizkolea mendien artean.

Helikopteroaz baliatu behar izan zuten hilotza handik ateratzeko, eta autopsia egingo diote, zer gertatu zitzaion argitzeko.

• [villabona-aiztondo@hitza.info](mailto:villabona-aiztondo@hitza.info)

## Ordutegi berria izango du enplegu zentroak, urtarrilean

**I. Urkizu** Tolosa

Tolosaldea Garatzeneko enplegu eta prestakuntza saileko enplegu zentroak, ordutegi berria izango du datorren urtarrilaren 7tik aurrera. Besteak beste, aholkularitza eta informazio profesionala, lan eskaintzetarako prestakuntza eta baliabide informatikoak eskaintzen dituzte.

Horrela, astelehenetik ostegunetara, 09:30etik 16:30era zabalik izango da, eta ostiraletan, berriz, 08:30etik 15:00etara irekiko dute. Gainera, Lehiberri eraikin berrira pasatzen direnean ere, enplegu zentroaren jardunarekin jarraituko dutela azpimarratu dute arduradunek.

## → Laburrak

### Espainiako banderaren batzarra, gaur

**TOLOSA** > Udaletxeetako balkoietan Espainiako bandera jartzeko agindua dela eta, herri batzarra izango da, gaur, 20:00etan, Tolosako udaletxe-ko pleno aretoan.

### Los Panchos ikusteko sarrerak eskuragarri

**TOLOSA** > Datorren urtarrilaren 11n, Leidorreko oholtzan ariko da Los Panchos hirukotea. Kultur Etxeko arduradunek azaldu dutenez, sarrerak eskuragarri daude jada, 20 euroren truke. Batetik, <http://www.kutxasarrerak.net> helbidean eros daitezke, eta bestela, Leidorreko leihatilan ere bai, zine saioen aurretik.

### Galtzaundiko loteria kobratzeko ordutegia

**TOLOSA** > Galtzaundiren 11.238 zenbakidun loteria kobratzeko ordutegia jarri dute. Gaur, 08:00etatik 19:00etara bitarte egongo dira egoitza, eta bihar, 08:00etatik 15:00etara. Beste-ela, urtarrilaren 7tik martxoaren 22ra joan beharko da, astelehenetik ostegunera, 09:00etatik 19:00etara, eta ostiraletan 08:00etatik 15:00etara.



Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan izan dira Olentzero eta Maridomingi. Herriz herri egin diote ongietorria eta jende asko bildu da egindako kalejiretan.

# Iritsi bezala joan da Olentzero

Rebeka Calvo

↓ **Gaurko egitaraua**

**P**asa dira urduritasunak. Olentzero eta Maridomingi etxera iritsiak izango dira honezkero, eta egindako lan mardularen ondotik atsedean hartzen ere egongo dira. Eguraldi bikaina egin zuen pasa den Gabon egunean, ateri eta tenperatura epelarekin, eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietako kaleak artzain-andrez jantzitako jendez bete ziren, horrela Olentzerori ongietorria eman asmoz. Eskualdeetan kantari ateratzeko ohitura dago, eta ez ziren gutxi izan kaleetan kantari egon ziren kuadrillak.

Olentzero arratsaldean iritsi ziren, eta jende asko bildu zen kaleetan ongietorria emateko. Tolosan, esaterako, Izaskunetik jaitzita lehen geldialdia Plaza Zaharrean egin zuen, eta herritar asko izan ziren bertan bildu zirenak Olentzero ikusteko. Ondoren, Euskal Herria plazara joan zen, eta bertan, lehen aldiz, Topic zentrorra sartu zen balkoitik guztiak agurtzeko. Zerkausion bukatu zuen ibilbidea, eta muxuak banatu eta gero, hasi zen lanean.

## Urtezaharra aurretik

Eguberrietako ospakizunak ez dira amaitu oraindik, hala ere. Urtezahar eguna eta gaua pasata, urte berria agurtu behar da oraindik, eta bien bitartean ekitaldi ugari antolatatu dituzte herrietan, nahiz eta batez ere, haur eta gazteentzat izan.

## EGUBERRIETAKO AGENDA

- **Asteasu.** *Barrura begiratzeko leihoak* dokumentala udaletxean, 19:00etan.
- **Belautza.** 16:00etan, Kultur Astearen barruan, zine emanaldia kultur etxean.
- **Ibarra.** Hipo eta Tomax pailazozen *Papo pupa* emanaldia 11:00etatik aurrera, kultur etxean.
- **Irura.** Haur eta gazteentzako pelikula, 17:30ean, kultur gunean.
- **Tolosa.** Udalaren haur parkea Zerkausion. Gaur eta bihar egongo da zabalik, doan, 11:00etatik 13:30era, eta 16:00etatik 20:00etara. Gaur 17:00etatik aurrera Patxin eta Potxinen *Ohitura onak* ikuskizuna ikusi ahal izango da, eta bihar ordu berean, Alabazan ipuin kontalariak izango dira Zerkausion.
- **Tolosa.** Jon Magik magoaren ikuskizuna Amaroško auzoetxean, 17:00etan.
- **Tolosa.** Gazte topagunean rock lantegia egingo dute, 17:00etatik 20:00etara.
- **Tolosa.** *Axterix eta Obelix* gazteentzako filma, gaur 17:30ean, euskaraz, Leidor aretoan. Sarrerak 3,5 euro balio du.
- **Villabona.** Haurrentzako zinema saioa, doan, Gurea zine-roman, gaur, 17:00etan.



Tolosa Plaza Zaharra jendez lepo, Olentzero ikusi zain. I. GARCIALANDA



Tolosa Samaniego ikastetxean eta ikaztegiaren plazan ere egon zen Olentzero. HITZA



Ikaztegiaren eskualdeetako herri gehienetan moduan, euskal preso eta iheslarien alde ateratzen ziren kantatzera. HITZA

Egin HITZAren harpidedun...

...abenduaren 31 baino lehen eta jaso

**Mahala baserriko produktuez osatutako saski ederra...**

...opari

**eta...**

... HITZAren harpidedunen artean

**PORTUGALEN** egiteko bi pertsonentzako zirkuitua zozkatuko dugu

**OVET Urraki**  
Buletaren editorea  
www.urrakibizilag.com

hamamarterako 902 82 02 01 / harpidetze@hitza.info

**hitza**

**Kirolak**

↓ **Kirol emaitzak**

**PILOTA**

**BINAKAKO TXAPELKETA**

<b>Lehen jardunaldia</b>	
Berasaluze VIII.a-Albisu	21
<b>Bengoetxea VI.a-Beroiz</b>	22
Xala- <b>Barriola</b>	22
Arretxe II.a-Begino	14

**EMAKUMEA PILOTARI**

**TXAPELKETA**

<b>Finalerdiak</b>	
<b>Lehen maila</b>	
Goikoetxea- <b>Arozena</b>	30
<b>Garmendia-Arrieta</b>	21
<b>Bigarren maila</b>	
Tijero-Erasti	30
Arruti-Beldarrain	21
<b>Jubenil maila</b>	
<b>Su-Berri 1</b>	13
<b>Su-Berri 2</b>	30

**ARETO FUTBOLA**

**HIRUGARREN MAILA**

<b>14. jardunaldia</b>	
<b>Tolosala</b> -Inter Eder Kafet.	2-2
<b>Laskorain</b> -Sestao	3-2
<b>Egintza</b> -Buruntza-Aldaz	3-2
<b>Ibarra</b> -Gora	8-1

**FUTBOLA**

**ERREGIONAL OHOREZKOA**

<b>15. jardunaldia</b>	
Zarautz K.E.- <b>Tolosa CF</b>	1-0

**Sailkapena**

1. Hernani	36 p
2. Real Union Club Sad	33 p
9. <b>Tolosa C.F.</b>	21 p

**Hurrengo jardunaldia**

<b>Tolosa CF</b> -Real Union Club Sad
---------------------------------------

**SASKIBALOA**

**LEHEN MAILA**

<b>12. jardunaldia</b>	
Mondragon Unibertsitatea	78
<b>Bidebide Donosti</b>	66

**Tolosako Udala**

**IRAGARKIA**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2012ko abenduaren 7an egindako bileran, hurrengo plana hasiera batez, baldintzekin, onestea erabaki zuen:

"5.1 Gorostidi Voith" azpiesparruko Hiri Antolamenduko Plan Berezia.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 97. artikulua 95.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, espediente HOGEI EGUNEz jendaurrean jarrita egongo da.

Espedientea jendaurrean jartzeko arrazoia hau da: nahi duenak dokumentua aztertu eta alegazioak egiteko aukera ematea.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Diario Vascon, Berrian, Hitzan eta Garan argitaratuko da. Aurrean aipatu den epea argitalpen horietako azken iragarpena kaleratu eta biharamunetik hasiko da kontatzen.

Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espedientea Tolosako Udaletxeko Hirigintzako Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean. Alegazio edo erreklamazioak eraikin horretan bertan dagoen Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira alkate-lehendakariari zuzenduta.

Tolosan, 2012ko abenduaren 17an,

**ALKATEA.**

Ibai Iriarte San Vicente.

# Ibarra A taldea, Euskal Herriko txapelkun

Badaiotzen aurka lehia estua izan dute ibartarrek, goma gaineko lauko txapelketa eskuratzeko



**I. Garcia Landa** Ibarra

Ibarra A taldeak iaz lortutiko garaipena errepikatu du, etxean, goma gaineko Lauko Euskal Herriko Sokatira Txapelketa eskuratu. Emakumezkoen 260 kiloan lortu du garaipena, Belabietako kiroldegian jokatutako hirugarren eta azken jardunaldian. Badaiotz izan du aurkari Ibarrek, eta txapela jantzi du kitarrako luze eta lehiatua jokatu ondoren. Hiru tiralditara jokatu dute kitarrakoa eta gipuzkoarrek azken tiraldi erabakigarria irabazi diete arabarrei.

Ibarra Ak eta Badaiotzek 11 puntuko berdinketarekin ekin zioten azken jardunaldiari, eta txanda eta tiraldi guztiak irabazi ondoren, elkarren kontrako txandan tiraldi bana irabazi zioten elkarri. Ondorioz, ligaska amaitu ondoren, kitarrakoa jokatu behar

izan zuten urrezko dominaz jabetzeko. Kitarrako lehen tiraldia luzea (4 minutu eta 15 segundo) eta borrokatua suertatu zen, eta arabarrek eraman zuten. Bigarren goa, aldiz, gipuzkoarrek faltengatik (02:30). Hirugarren eta azken tiraldian etxekoek dena eman zu-

ten, eta baita tiraldia eraman ere. Onintza Iraola, Miryan Elortza, Agurtzane Beloki eta Oihane Sarasola dira Ibarra A-ko taldekideak eta Imanol Otermin izan dute prestatzaile. Ibarra B taldeak hirugarren postuan amaitu du txapelketa.

Elortza, Beloki, Sarasola eta Iraola esfortzu betean, Otermin ondoan dutela, Belabietako frontoian. HITZA

## Aimar Irigoienek oso erraz irabazi du Harri Handien Txapelketa

Asteasun jokatu da txapelketa, eta errezilarrak 57 jasoaldi egin ditu; Ostolatzak 40 eta Eizmendik 38

**E. Maiz** Asteasu

Euskal Herriko Harri Handien Txapelketa jokatu zen Asteasuko pilotalekuan, eta Aimar Irigoien errezilarrak izan zen nagusi hasiera-hasieratik. Lau harrirekin egin behar izan zuten lana hiru harri-jasotzaileek, eta errezilarrak guztira 57 jasoaldi egin zituen 8.775 kilo bizkar gainera igoz. Bigarren postuan Joseba Ostolatz zestoarra sailkatu zen, eta hirugarren postua Jokin Eizmendi zarauztarrentzat izan zen. Bigarrenak 40 jasoaldi egin zituen 6.225 kilo jasoz, eta hirugarrenak 5.825 kilo jasoz 38 jaso-

soalditan. Lan txukuna egin zuten hiru harri-jasotzaileek, eta jende asko izan zen harmailetan.

200 kiloko harri errektangularrak, 175 kiloko zilindroak, 150 kiloko kubikoa eta 125 kiloko bola jaso behar izan zituzten. Harri bakoitzarekin lana egiteko hiru minutu izan zituzten kirolari bakoitzak. Seigarren aldiz eskuratu du txapela Irigoien gazteak, eta iaz jokatu ez zenez, bi urte itxaron behar izan du, berriz ere, harri handien txapela janzteko.

**Mujika aizkolaria, txapeldun**

Aizkolarien Gabonetako torneoa jokatu da, eta Jesus Mari Mujika ibartarra izan da irabazlea. Bost erataria ebaki behar izan zituzten zortzi enbor, eta Mujikak, 19 minutu eta 33 segundo behar izan zituen bere lanak bukatzeko. Xabier Mindegia labaiendarrak, berriz, 20 minutu eta 25 segundoko denbora egin zuen.



Asteasuko sari banaketaren une bat. HITZA



Imanol Rojo aurretik, eta bere anaia Ioseba, atzean. HITZA

## Nagusitasuna erakutsi dute Rojo anaiek Espainiako Kopan

Eskiatzaile tolosarrak aurreneko bi postuetan sartu dira; Imanol Rojok irabazi du eta Ioseba bigarren izan da

**I. Garcia Landa** Tolosa

Imanol Rojo eta Ioseba Rojo anaia tolosarrek lehen bi postuetan amaitu dute, hurrenez hurren, iraupen eskiko Espainiako Koparen lehenengo proban. Joan den igandean izan zen lasterketa, Beret eski estazioan.

Giro bikaina, elurra gogorra eta azkarra, eta partaidetza maila altukoa izan zen proban, Euskal

Herriko, Espainiako, Herrialde Katalanetako eta Frantziako Pirinioetako eskiatzaile onenak bertan baitziren.

Irteeratik Roja anaiek tarte handia atera zuten, eta tarte hori gehitzen joan ziren. Helmugan esprintean Imanol Rojo izan zen garaile bere anaia Iosebaren aurretik. Oso tarte handiarekin sartu ziren hirugarren postuan Vicens Vilarrubia kataluniarra eta laugarren Baptiste Cazaus frantziarra.

Emaitzak bikain horren ondoren, Rojo anaiek datorren asteburuan Llivian eta Candanchun dituzte hurrengo probak eta urtarilean Europako Kopako zenbait lasterketetan parte hartuko dute.

## Barriolak bihar Tolosan eta Bengoetxea VI.ak etzi Iruñean jokatuko dute

Binakako Txapelketako lehen partidak irabazi dituzte; biharko Tolosako jaialdia 17:00etan hasiko da

### E. Maiz

Lau t'erdiko Txapelketaren ostean, hasi da Eskuz Binakako Txapelketa. Lehen jardunaldia jokatuta, bi pilotari leitzarrek lehen partidak irabazi dituzte. Abel Barriolak Xala du bikotekide eta Oinatz Bengoetxeak, Beroiz.

Xala eta Barriola bikoteak bihar bertan jokatuko du txapelketako bigarren partida. Tolosako Beotibar pilotalekuan izango da, eta 17:00etan hasiko da jaialdia. Atzo arratsaldean aukeratu zituzten pilotak, eta Gonzalez eta Zubietak osatutako bikoa izango

dute aurkari. Jaialdiko lehen partida, berriz, Lemuno eta Mendizabal II.a bikotea eta Tainta eta Untoriaren artekoa izango da.

Bengoetxea VI.ak eta Beroizek ere larunbatean jokatuko duten partidarako pilotak aukeratuak dituzte. Iruñeko Labrit pilotalekuan izango da, eta Olaizola II.a eta Zabala izango dituzte aurkari.

Lehen jardunaldiaren ostean, lehen postuan Martinez Irujo eta Zabaleta daude. Bigarren postua, Xala eta Barriolarena da. Arretxe II.a eta Beginori 22 eta 13 irabazi eta gero. Bengoetxea VI.ak eta Beroizek 22 eta 21 irabazi zieten Berasaluze VIII.a eta Albisuri, eta laugarren postuan kokatu dira. Txapelketak ondo bukatzea bezain garrantzitsua izan ohi da ondo hastea, eta hasiera ona eman diote luzea izango den Binakako Txapelketari. Puntu bana poltsikoratua dute leitzarrek.

## Eskualdekoen hiru garaipen eta berdinketa bat, areto futboleko

Ibarrak, Laskorainek eta Egintzak irabazi egin dute, eta Tolosalak berdindu, asteburuan jokatutako partidetan

### Erredakzioa

Hirugarren mailan jokatzen duten eskualdeko lau taldeek emaitza onak lortu dituzte aurreko asteburuan. Ibarrak, Laskorainek eta Egintzak irabazi egin dute, eta Tolosala Hirukide taldeak berdindu egin du etxean. Ibarrak 8-1 irabazi zion Gora taldeari, Laskorainek 3-2 Sestaori, Egintzak 3-2

Buruntzari, eta Tolosalak 2-2 berdindu zuen Inter Eder Kafetegia-aren aurka.

Emaitza horiek, Ibarrak sailkapeneko lehen postuan jarraitzen du, Tolosalak laugarren postua mantentzen du, Laskorain 9. dago postu bat igo ondoren, eta Egintzak bi postu egin du aurrera eta egun 11. dago.

Laskorainek lan asko egin behar izan zuen partida irabazteko. 3-0 aurreratu baziren ere, atsedena idria iritsi baino lehen. Sestaokoek lehenengo gola sartu zuten. Bigarren zatiaren hasieran sartu zuten aurkariak bigarrena eta hortik aurrera markagailuari eutsi behar izan zioten tolosarrek.

## Irudia ◊ Alegia



## GABONETAKO XI. TOPAKETA, ABIAN

Alegia, Altzo, Amezketa eta Ikaztegiako pilotari gazteek parte hartzen duten Gabonetako XI. Topaketa abian jarri zen atzo. Lehenbizi, parte hartzaile guztiak Alegiako frontoian elkartu ziren txapelketaren argazki ofiziala ateratzeko. Ondoren,

maila bakoitzeko pilotariak zegokien frontoietara joan ziren kanporaketako partidak jokatuz. Gaur, 16:00etan hasiko dira bigarren eguneko kanporaketak, eta larunbatean jokatuko dira finalak, Ikaztegiatan, 16:00etan hasita. I.G.L.

## Elkarren aurka, finalean, Arozena eta Mendizabal

Emakumea Pilotari Txapelketako zenbait finalerdi jokatuta dira Tolosako Beotibar frontoian

### I. Garcia Landa

Emakumea Pilotari Txapelketako finalak erabakita daude. Tolosan jokatutako finalerdien ondoren, lehen mailan Nagore Arozena lizartzarra eta Miren Goikoetxea urnietarra, Maider Mendizabal anoetarraren eta Pili Pagola hernaniarraren aurka ariko dira. Finalerdian, Arozenak eta Goikoetxeak Ainhoa Garmendia alegiarrari eta Ariane Arrietari 30-21 irabazi zieten, Tolosan jokatutako partidatan. Partida oso borrokatua izan zen orokorrean, baina norgehiagokaren erditik aurrera Arozenaren joko ona nagusitu zen eta partida bereganatu zuten Goikoetxearekin batera.



Jubenil mailako Su-Berri 1 eta Su-Berri 2, finalerdia jokatuta aurretik. HITZA

Bigarren mailako finalerdian, Tijero-Errasti bikoteak 30-21 irabazi zuten Arruti-Beldarraini, eta finalerako txartela lortu zuten.

Beotibarren ere jubencil mailakoek jokatuta zuten. Su-Berri 1eko Igone Gutierrez irurarrak eta Anne Maiza zizurkildarrak Su-Berri 2 taldeko Leire Ormazabal irurarrari eta Leire Gabirondo donostiarri irabazi zioten, 30-13ko

emaitza lortuz. Finalean Intxurre taldearen aurka ariko dira. Erraz irabazi zuten partida Su-Berri 1 taldekoek, akats gutxi eginez.

Emakumea Pilotari Txapelketako finalak Donostiako Atano III.a frontoian jokatuta dira, larunbatean. Finalen aurretik, eskola mailako Eguberrietako Txapelketa Azkarraren finalak jokatuta dira.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	OSKARI
BEROENA	18°
HOTZENA	13°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1.687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:** **BERTAKO HEDABIDEAK**



**Galtzaundi euskara taldea**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa: Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 38 49. Gauekoa: Ollarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen etairitzien erantzukizunik.

## Agenda

### DEIALDIK

- **Ibarra.** Hipo eta Tomax paila-zenen *Papo pupa* emanaldia, gaur, 11:00etan, kultur etxean.
- **Ibarra.** Osoko bilkura, gaur, 19:00etan. Besteak beste, Alianza por el Alzheimer taldeak proposatutako Alzheimerreko elkartasun hiri egitea eta Bilduk euskal presoenginguruan aurketutako mozioa izango dituzte hizpide.
- **Belauntza.** Gaur, 16:00etan, Kultur Astearen barruan, zine emanaldia kultur etxean.
- **Villabona.** Haurrentzako zinema saioa, doan, Gurean, gaur, 17:00etan.
- **Asteasu.** *Barrura begiratzeko leihoak* udaletxean, 19:00etan.
- **Tolosa.** Udalaren haur parkea Zerkausian gaur, egun osoan.
- **Tolosa.** Jon Magik, gaur, Amaroako auzoetxean, 17:00etan.
- **Tolosa.** Gazte topagunean gaur, rock lantegia, 17:00etatik 20:00etara.
- **Tolosa.** *Axterix eta Obelix*, 17:30ean, euskaraz, Leidorren.
- **Irura.** Haur eta gazteentzako pelikula, 17:30ean, kultur gunean.

## Irudia Altzo



## HERRITARREK IKURRINAREN ALDE EGIN DUTE

Altzotarrek ikurrina omendu zuten pasa den igandean. Plazan elkartu ziren eta modu horretan babestu nahi izan zituzten herritarrek alkatea eta zinegotziak «Espainiako bandera jartzeko agin-

dua betetzera behartu dituztelako». «Inposaketa berri honen aurrean, herritarrek garen aldetik, gure aurkako jarrera adierazi dugu», azaldu zuten. HITZA

## Agurak



**Urte askoan!**  
**Olaia Zubeldia Azkolain (Ibarra).**  
Gaur 8 urte! Zorionak birramona Tereren partetik.

**AGURRAK**  
943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

●●●● **agurak**

**Mauka** GAURKO ESKAINTZA

Zaindu zeure irudia konfiantzazko leku batean, eta preziorik onenean!

ITZUAR ARABO ILKAPANDEGIA  
Legeor: 10/2004/26  
JANOTIA 2001 - OPILOA  
Tel. 943 65 11  
tolosa@gmail.com

Prezioa **26€**

[www.mauka.eu](http://www.mauka.eu) **berria**